



## 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzeak.

### AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik.

Testuaren bukaeran, foru arauaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

### AURKIBIDEA

|                                                                                                  |           |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>I. TITULUA</b> .....                                                                          | <b>3</b>  |
| <b>ZERGA ARAUEN EGOKITZAPENA</b> .....                                                           | <b>3</b>  |
| I. KAPITULUA. OINORDETZEN ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGA.....                                      | 3         |
| 1. artikulua. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga aldatzea .....                            | 3         |
| II. KAPITULUA. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA .....                                  | 7         |
| 2. artikulua. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga aldatzea .....                        | 7         |
| III. KAPITULUA. ABERASTASUNAREN ETA FORTUNA HANDIEN GAINEKO ZERGA .....                          | 9         |
| 3. artikulua. Aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga aldatzea.....                    | 9         |
| IV. KAPITULUA. ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO<br>ZERGA.....     | 9         |
| 4. artikulua. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga aldatzea.... | 10        |
| V. KAPITULUA. UDAL ZERGAK .....                                                                  | 10        |
| 5. artikulua. Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua aldatzea. ....            | 10        |
| 6. artikulua. Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga aldatzea .....                       | 10        |
| 7. artikulua. Ondasun higiezinaren gaineko zerga aldatzea .....                                  | 11        |
| 8. artikulua. Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga aldatzea.....                                 | 11        |
| 9. artikulua. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga aldatzea.....                         | 11        |
| 10. artikulua. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga aldatzea.....                      | 12        |
| <b>II. TITULUA</b> .....                                                                         | <b>12</b> |
| <b>TESTAMENTU-AHALORDEA ERABILI GABE DUTEN HERENTZIEN ZERGA ARAUBIDEA</b><br>.....               | <b>12</b> |
| I. KAPITULUA. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA ETA ONDAREAREN GAINEKO<br>ZERGA.....    | 12        |
| 11. artikulua. Arau orokorrak.....                                                               | 12        |
| 12. artikulua. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga .....                                | 13        |
| 13. artikulua. Ondarearen gaineko zerga.....                                                     | 15        |
| II. KAPITULUA. HIRI-LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA. ....                               | 15        |



|                                                                       |    |
|-----------------------------------------------------------------------|----|
| 13 bis artikulua. Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga. .... | 15 |
| III. KAPITULUA. ALDERDI KOMUNAK ETA BESTE BATZUK .....                | 16 |
| 14. artikulua. Xedapen komunak.....                                   | 16 |
| 15. artikulua. Atxikitzeko betebeharra. ....                          | 17 |
| 16. artikulua. Ondare sozietateen araubidea. ....                     | 17 |
| XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA .....                                 | 18 |
| AZKEN XEDAPEN BAKARRA. INDARREAN JARTZEA.....                         | 18 |

## HITZAURREA

2015eko urriaren 3an, indarrean jarri zen ekainaren 25eko 5/2015 Legea, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa. Autonomia Estatutuak 10. artikuluko 5. apartatua aitortzen dizkion eskumenak erabilia onartu zuen Eusko Legebiltzarrak lege hori, bertan ezartzen baita Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eskumen beregaina dela Euskal Herria osatzen duten herrialde historikoen Zuzenbide Zibila, Forala eta berezia, idatzizkoa zein ohiturazkoa, artatu, aldatu eta garatzea, bai eta hura indarrean izango den lurralde eremua finkatzea ere.

Lege horren aurrekaria uztailaren 1eko 3/1992 Legea da, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilar buruzkoa, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren kasuan, azaroaren 26ko 3/1999 Legea, Euskal Herriko Zuzenbide Zibilar buruzko Legea Gipuzkoako Foru Zibilar dagokionez aldatzen duena.

Begi-bistakoa da Zuzenbide Zibilak inplikazio nabarmenak dituela Tributuen Zuzenbidean, eta, horrela, Euskal Zuzenbide Zibilaren legeak berak hirugarren xedapen gehigarrian dio lurralde historikoetako foru organoek, emanda dauzkaten eskumenak baliatuta, beren zerga arauak egokitu behar dituztela lege honetan erregulatutako instituzioetara.

Bestalde, Ekonomia Itunak xedatzen du lurralde historikoetako erakunde eskudunek ahalmena dutela beren zerga araubidea nork bere lurraldean mantendu, ezarri eta arautzeko.

Horregatik guztiagatik, eta 5/2015 Legean ezarritakoa betetze aldera, foru arau honen bitartez beharrezko aldaketak sartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Herriko Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitzeko, eta fiskalitatearen alorrean ere behar den segurtasun juridikoa emateko.

Gainera, nabarmendu behar da foru arau honek Gipuzkoan arautzen dituela aurreneko aldiz «testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziaren» berezitasun tributarioak; bere konfigurazioan berezia den figura hori ez da ageri Kode Zibilaren sisteman, baina aparteko eragina du bai oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan, bai pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, eta bai aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zergan.



Bi titulu ditu foru arauak: «Zerga arauen egokitzapena», eta «Testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentzien zerga araubidea».

I. tituluak –Zerga arauen egokitzapena– aldaketak sartzen ditu oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zergan, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, eta udal zergetan, eta denak behar-beharrezkoak dira gure zerga sistema euskal legeria zibil berrira egokitzeko.

II. tituluak –Testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentzien zerga araubidea– ezartzen du nola zergapetu behar diren herentzia horiek bai pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta bai aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zergan.

Bestalde, II. tituluan ere ezartzen da testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziek atxikitze obligazioa izango dutela zerga araudiak finka-tzen dituen kasuetan, betebeharrak formal eta material batzuen inguruko xedapen komunak ematen dira, eta bertan artikulua bat jasotzen da ondare sozietateen araubideari buruz.

Azkenik, foru arau honek bi xedapen ditu bukaeran: indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

## I. TITULUA

### ZERGA ARAUEN EGOKITZAPENA

#### I. KAPITULUA. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga

##### 1. artikulua. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 11ko 3/1990 Foru Arauan:

**Bat.** 19. artikulua 1. apartatua honela geratzen da idatzita:

«1. Etxebizitzaren jabari osoa, gozamina, jabetza soila, azalera eskubidea edo erabiltze eta biztante eskubidea kosturik gabe eskuratzen bada «inter vivos» edo «mortis causa» dela medio, eta eskualdaketa egin aurreko bi urteetan eskuratzailerak eskualdatzailearekin batera bizi izan bada, eskurapen horrek 100eko 95eko murrizketa izango du zerga oinarrian, 220.000 euroko mugarekin.

Bizikidetzaren beharkizuna frogatzeko, errolda agiria eta epe horretan elkarrekin etenik gabe bizi izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dira, betiere zuzenbidean onartutako beste edozein frogabide erabiltzea eragotzi gabe».

**Bi.** 23. artikulua honela geratzen da idatzita:

«23. artikulua. Sortzapena.

1. Mortis causa eskurapenetan eta bizitza-aseguruetan, zerga sortuko da kausatzailea edo aseguraturia hil-tzen den egunean edo, bestela, absentearen heriotza-adierazpenak Kode Zibilaren 196. artikulua aurreikusten duen irmotasuna hartzen duenean.

Testamentu-ahalorde bidez gauzatzen diren herentzietan, ahalordea modu ezeztazenez erabiltzen denean edo hura azkentzeko arrazoietako bat gertatzen denean sortuko da zerga.

Eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza-itunen kasuan, izendatzailea bizirik dagoela sortuko da zerga, eskualdaketa egiten denean.

2. Inter vivos egiten diren doako eskualdaketatik, kontratua gertatzen edo egiten den egunean sortuko da zerga.

3. Ondasunen eskurapen batek etenda badu eraginkortasuna tartean baldintza bat, epemuga bat, fideikomiso bat edo beste edozein muga ezarri delako, mugapen horiek desagertzen diren egunean gauzatutzat joko da eskurapena».

**Hiru. 25. bis artikulua** gehitzen da, testu honekin:

«25. bis artikulua. Gozamina testamentu-ahalordearen menpeko herentzietan.

1. Testamentu-ahalordean, ahalordea erabiltzen ez den bitartean pertsona jakin bati ematen bazaio herentziako ondasunez gozatzeko eskubidea, gozamen horren bi autolikidazio egingo dira, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasuna kontuan hartuta: behin-behineko autolikidazio bat, sortzapena oinordetza hastean izan duena eta biziarteko gozamenaren arauen arabera egin behar dena, eta behin betiko autolikidazio bat, testamentu-ahalordea erabiltzen denean egingo dena, aldi baterako gozamenaren arauen arabera, kausatzailearen heriotza-tik igarotako denboragatik. Behin-behineko autolikidazioagatik ordaindutakoa kontura egindako sarreratzat hartuko da, eta diferentzia gozamendunari itzuliko zaio, haren aldekoa gertatzen bada.

2. Testamentu-ahalordea erabiltzeko epea zehaztuta badago, behin-behineko likidazioa egiteko aldi baterako gozamenaren arauak aplikatuko dira, ahalordea erabiltzeko ezarrita dagoen gehieneko epeagatik.

3. Aldi baterako gozamenaren behin betiko likidazioa testamentu-ahalordea erabiltzeagatik edo hura azkentzeko beste arrazoiengatik oinordeko gertatzen diren likidazioa egitearekin batera aurkeztuko da, kausatzailea hiltzean ondasunek duten balioa kontuan hartuta».

**Lau. 25. ter artikulua** gehitzen da, testu honekin:

«25. ter artikulua. Testamentu-ahalordea erabiltzea.

1. Gertatzen bada komisario alargunak, ahalordea erabiltzean, komisarioaren eta kausatzailearen ondorengo komun bati adjudikatzen diola ezkontza osteko erkidegoaren ondasun jakin bat, herentzia banatu eta likidatu gabe, orduan alargunari dagokion erdia dohaintza modura likidatuko da, eta kausatzaileari dagokion beste erdia oinordetza modura.

2. Testamentu-ahalorearen menpeko oinordetzetan, bi likidazio egin behar dira, hala dagokionean: bata, kausatzailea hil eta berehala, ahalordeak ukitzen ez duen herentziaren zenbatekoagatik, eta, bestea, ahalordea modu ezeztazinean erabili edo hura azkentzeko gainerako arrazoietakoa bat gertatu ondoren, ahalordeak ukitzen duen herentziaren zenbatekoagatik.

3. Testamentu-ahalordea erabiltzen den guztietan, oinordeko berberari dagozkion eskurapen guztiak metatu egingo dira, bai zerga likidatzeko eta bai foru arau honetan zerga oinarriko aurreikusten diren murriztapenak aplikatzeko. Gainera, metatutako likidazioengatik lehendik ordaindutako kuotak kendu ahal izango dira metaketaren ondorioz egiten den likidaziotik».

**Bost.** 25. quater artikulua gehitzen da, testu honekin:

«25. quater artikulua. Herentzia bidezko eskurapenen metaketa.

1. Kausadun batek kausatzaile jakin batengandik oinordetza beraren ondorioz lortzen dituen ondare gehikuntza guztiak herentzia bidezko eskurapen bakartzat joko dira, nahiz eta oinordetza-titulu baten baino gehiagoren bidez lortuak izan.

2. Hori dela-eta, jasotzen diren ondasun eta eskubide eskurapen guztiak metatu egingo dira, izan horiek eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza-itunengatik jasotakoak, izan testamentu-ahalordea osorik edo partez erabili edo hura azkentzeko beste arrazoiak gertatzeagatik egindakoak, izan testamentugileak berak testamentuan zuzenean xedatutakoak, edo haren faltan, Legean ezarritakoak.

3. Artikulu honetako aurreko bi apartatuetan aipatu diren ondare gehikuntza guztiak herentzia bidezko eskurapen bakartzat hartuko dira zerga likidatzeko. Hortaz, zerga kuota kalkulatzeko garaian, zerga oinarri guztiak batu behar dira, eta foru arau honetan araututako zerga oinarriaren murriztapenen artetik aplikatu beharrekoak behin bakarrik aplikatuko dira.

Gainera, metatutako likidazioengatik lehendik ordaindutako kuotak kendu ahal izango dira metaketaren ondorioz egiten den likidaziotik, baina ez da inoiz kuotarik itzuliko».

**Sei.** 25. quinquies artikulua gehitzen da, testu honekin:

«25. quinquies artikulua. Itzulketetan likidatzeko erregelak.

1. Berehalako eraginkortasuna duten oinordetza-itunen bidez egiten diren ondasun eskualdaketetan edo mantenua kargupean hartzen duten ondasun dohaintzetan, ondasunak izendatzaileari edo dohaintza-emaileari itzultzen bazaizkio, likidazio bat egingo da, aldi baterako gozamenaren arauak jarraituz, eta likidazio horretatik ateratzen bada itzulitako ondasunen eskualdaketagatik hasiera batean egindako likidazioaren aldean soberakin bat ordaindu dela, soberakin hori zergadunari itzuliko zaio.

2. Itzulitako ondasunak ez dira kausatzailearen herentzian metatuko –metaketa hori foru arau honen aurreko artikuluan aipatzen da–, baldin eta ondasunoi artikulua honen aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatu bazaie».

**Zazpi.** 26. artikulua 1. apartatua honela geratzen da idatzita:

«1. Mortis causa oinordetzetan, interesdunek egiten dituzten banaketak eta adjudikazioak edozein direla ere, zergaren ondorioetarako ulertuko da oinordetza horiek proportzionaltasun osoz eta oinordetzaren arauen arabera egin direla, kontuan hartu gabe ondasun horiek lurraldearengatik edo beste edozein arrazoiarengatik zergaren ordainketari loturik dauden ez. Hortaz, balioak egiaztatzean gertatzen diren gehikuntzak eskuratzaille edo oinordekoen artean hainbanatuko dira».

**Zortzi.** 31. artikuluari 2. apartatua gehitzen zaio, honako hau dioena:

«2. Testamentu-ahalardearen menpeko herentzietan, komisarioak zerga aitorten bat aurkeztu behar du, bertan kausatzailearen heriotza adierazita. Aitorten horretan, foru arau honen 31. bis artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

Apartatu honetan aipatzen diren herentzietan, zergadunek ezingo dute autolikidaziorik aurkeztu, harik eta testamentu-ahalordea modu ezeztazinean erabili arte –partzialki zein osorik–, edo hura azkentzeko dauden beste arrazoietakoa bat gertatu arte».

**Bederatzi.** 31. bis artikulua gehitzen da, testu honekin:

«31. bis artikulua. Komisarioaren betebeharrak testamentu-ahalardearen menpeko herentzietan.

1. Testamentu-ahalardearen menpeko herentzietan, komisarioak, 6 hilabeteko epea du, kausatzailea hiltzen den egunetik aurrera edo heriotza-adierazpenak Kode Zibilaren 196. artikuluan aipatutako irmotasuna hartzen duenetik aurrera, herentziako ondasunen inbentarioa eta ahalordearen frogagiriak aurkezteko. Gainera, zerga Administrazioak egoki irizten duen beste edozein agiri aurkezteko eskatu diezaioke.

Epe hori luzatu daiteke, erregelamenduz ezartzen denari jarraituz.

Testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentzia batean aldaketak gertatu badira herentziako ondare elementuen inbentarioan, komisarioa behartuta dago zerga Administrazioari horien berri ematera baldin eta aldaketa horiek oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren sortzapena ez badakarte. Komunikazioa hilabeteko epean egin behar da, ondare aldaketa gertatzen denetik aurrera, eta harekin batera aldaketaren frogagirien kopiak aurkeztu behar dira.

2. Era berean, hilabeteko epean, testamentu-ahalordea modu ezeztazinean –hala partzialki nola osorik– erabiltzen den egunetik edo hura azkentzeko arrazoietakoa bat gertatzen den egunetik aurrera, komisarioak aurreko alderdi horien berri eman behar dio Zerga Administrazioari, eta ahalordea erabili dela egiaztatzeko dokumentazioa ere aurkeztu behar dio, edo, bestela, ahalordea azkendu dela justifikatu».

**Hamar.** Azken paragrafo bat gehitzen zaio 32. artikulua 3. apartatuari, eduki hau duena:

«Gainera, notarioek, hil bakoitzeko lehen hamabost egunen barruan, zerrenda bat bidali behar diote Foru Aldundiari, eta bertan adierazi aurreko hilean baimendu dituzten testamentuetatik zeinetan erabili duen herentzia baten komisarioak testamentu-ahalordea modu ezeztazinean; orobat, bertan zehaztu behar dute komisarioa nor izan



den eta zein den ahalordea erabiltzea ekarri duen herentziaren kausatzailea. Notarioek baimendutako agiri guztien artetik testamentu-ahalordea erabilia dutenak baino ez dira agertu behar zerrenda horretan, are ahalordea komisarioaren testamentuan erabili denean ere».

**Hamaika.** 40. artikulua honela geratzen da idatzita:

«40. artikulua. Zehapen araubidea.

1. Foru arau honetan araututako zergaren arau-haustea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak IV. tituluaren xedatutakoaren arabera zehatuko dira.

2. Ondasun edo eskubideen eskurapen salbuetsiengatik egiten diren autolikidazioak edo foru arau honetako 19. artikuluko murriztapenak aplikatuta egiten direnak epez kanpo aurkezten badira, eta haien zenbatekoa zerga oinarriaren berdina edo handiagoa bada, eskuratutako ondasun eta eskubideen balio garbiaren 100eko 0,1eko diruzko isun proportzionala ezarriko da; isuna, zergadun bakoitzeko, 600 eurokoa izango da gutxienez, eta 9.000 eurokoa gehienez.

3. Testamentu-ahalordearen bidezko herentzien komisarioari foru arau honetako 31. bis artikuluan ezarritako betebeharrak berariaz araututako epean ez betetzea zerga alorreko arau-haustetzat joko da, eta honako erregela hauen arabera zehatuko da:

a) Komisarioak ez badu aurkezten herentziako ondasunen inbentarioa edo inbentarioan izandako aldaketen dokumentazioa –aldaketa horrek zergaren sortzapena ekarri gabe–, edo komisarioak duen ahalordearen frogagiria, 600 euroko diruzko isun finkoa ezarriko da.

b) Salbuetsitako eskurapenetan, edo foru arau honetako 19. artikuluan ezarritakoaren arabera aplikatutako murriztapenak zerga oinarriaren parekoak edo handiagoak dituzten eskurapenetan, ez bada jakinarazten testamentu-ahalordea erabili dela edo hura azkentzeko beste arrazoietako bat gertatu dela, eskuratutako ondasun eta eskubideen balio garbiaren 100eko 0,1eko diruzko isun proportzionala ezarriko da; isuna, zergadun bakoitzeko, 600 eurokoa izango da gutxienez, eta 9.000 eurokoa gehienez.

4. Aurreko apartatuan xedatutakoari jarraituz ezartzen diren zehapenei aplikagarri izango zaie Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 192. artikuluan xedatutakoa».

## **II. KAPITULUA. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga**

### **2. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzea.**

Aldaketa hauek sartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan:

**Bat.** 3. apartatua gehitzen zaio 10. artikuluari, honako edukia duena:

«3. Orobat, zerga honen zergadunak testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziak ere izango dira, hain zuzen 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitzen duenak, II. tituluan aurreikusitakoak».

**Bi.** 4. apartatua gehitzen zaio 11. artikuluari, honako edukia duena:

«4. Testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziei ez zaie aplikatuko errentak esleitzeko araubidea, eta foru arau honen 12. artikuluko 6. apartatuan ezarritakoaren arabera zergapetuko dira».

**Hiru.** 6. apartatua gehitzen zaio 12. artikuluari, honako edukia duena:

«6. Testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziei dagozkien etekinak, ondare irabazi eta galerak eta errenta egozpenak herentziako ondasunen gozamendunari esleitu zaizkio, haien jatorriaren edo iturriaren arabera, baldin eta, kausatzaileak hala xedatuta edo Euskal Zuzenbide Zibilaren legeria aplikatuta, ondasun eta eskubideen gainean gozamen-eskubidea ezarri bada pertsona jakin batentzat edo gehiagorentzat.

Aurreko paragrafoan aipatutako ondare irabazi eta galerak gozamendunari esleitu zaizkio, bakar-bakarrik, baldin eta eskualdaketa batetik ez datozen ondasun eta eskubideengatik sortu badira.

Jarduera ekonomikoen etekinak izaera horrekin esleitu zaizkio gozamendunari.

Etekinak eta errenta egozpenak gozamen-eskubide bati lotuta ez dauden ondasun edo eskubideetatik datozenean, eta ondare irabazi eta galerak apartatu honetako bigarren paragrafoan aipatutakoak ez bestelakoak direnean, herentziari berari esleitu zaizkio, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitzen duen 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 Foru Arauak II. tituluan ezarritakoaren arabera zergapetuko dira».

**Lau.** Amaierako paragrafo bat gehitzen zaio 35.4. artikuluari. Hona hemen haren edukia:

«Aurreko paragrafoan xedatutakoa berdin aplikatuko da aktiboak berreskuratu, amortizatu, trukatu edo bihurtzen badira dohaintza-emailea hil baino lehen».

**Bost.** 41. artikulua 2. apartatuko b) letra honela berridazten da:

«b) Zergadunaren mortis causa dela-eta egiten diren kostu gabeko eskualdaketatik, are kostu gabeko eskualdaketa hori komisarioak testamentu-ahalordea erabilita edo berehalako eraginkortasuna duen edozein oinordetza-titulu bidez egiten denean ere. Ondorio horietarako, oinorde-tza-tituluak dira Oinorde-tzen eta Dohain-tzen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 11ko 3/1990 Foru Arauaren 3. artikuluan ezarritakoak».

**Sei.** 47. artikuluko 1. apartatuari ñ) letra gehitzen zaio, honako hau dioena:

«ñ) Balio aldaketa gertatzen bada testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentzia batekoak izandako ondasunak besterentzeagatik, ondare irabazia edo galera kalkulatzeko, testamentu-ahalordea erabiltzean ondare elementu horrek daukan balioa hartuko da eskurapen baliotzat».

**Zazpi.** 113.4. artikulua honela geratzen da idatzita:

«4. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek jarduera ekonomikoak egiten badituzte, derrigorrezko liburu bakarrak eraman behar dituzte beren jarduerari dagokionez, betiere bazkide, oinordeko, erkide edo partaideengatik etekinak esleitzea eragotzi gabe.

Aurreko paragrafoko erregela bera testamentu-ahalardea erabili gabe duten herentziei aplikatuko zaie, jarduera ekonomikoak egiten badituzte, foru arau honen 12.6 artikuluan haien etekinak esleitzeari buruz ezarrita dauden erregelak ezarrita ere».

### **III. KAPITULUA. Aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga**

#### **3. artikulua. Aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga aldatzea.**

Aldaketa hauek sartzen dira Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergari buruzko abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauan:

**Bat.** 7. artikulua honela geratzen da idatzita:

«7. artikulua. Zergadunak.

1. Zerga honen zergadunak dira:

- a) Obligazio pertsonalarengatik, foru arau honen 3. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren pertsona fisikoak.
- b) Obligazio errealararengatik, foru arau honen 3. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren pertsona fisikoak.

2. Orobat, zerga honen zergadunak testamentu-ahalardea erabili gabe duten heren-tziak ere izango dira, hain zuzen 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitzen duenak, II. tituluan aurreikusitakoak».

**Bi.** 6. apartatua gehitzen zaio 9. artikuluari, honako edukia duena:

«6. Testamentu-ahalardea erabili gabe duten herentzietan gozamen eskubiderik badago, aurreko 1, 2, 3. eta 4. apartatueta ezarritako arauak aplikatuko zaizkio gozamendunari.

Jabetza soilaren balioari dagokionez, edo inolako gozamendunik ez dagoenean, testamentu-ahalardea erabili gabe duten herentziak zergapetuko dira 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitzen duenak, II. tituluan ezarritakoaren arabera.».

### **IV. KAPITULUA. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga**

#### **4. artikulua. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga aldatzea.**

Aldaketak sartzen dira Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauaren 7. artikuluko 2. apartatuaren b) letran, eta honela uzten da idatzita:

«b) Aitortutako adjudikazio soberakinak, salbu eta Kode Zibilaren 821., 829., 1.056. (bigarrena) eta 1.062. (lehenengoa) artikuluetan edo funts berean oinarritutako Euskal Zuzenbide Zibileko xedapenetan ezarritakoa betetzetik sortutakoak, eta, bereziki, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legeak baserriaren eta hari lotutako lurren inguruan arautzen duen doako eskualdaketatik datozenak».

### **V. KAPITULUA. Udal zergak**

#### **5. artikulua. Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua aldatzea.**

18.bis artikulua gehitzen zaio Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauari, eta haren testua honako hau da:

«18. bis artikulua.

Testamentu-ahalordearen bidez gauzatzen diren herentzietan, administratzailea erantzule subsidiarioa izango da testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziaren zerga zorrei dagokienez».

#### **6. artikulua. Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga aldatzea.**

**Bat.** Bigarren paragrafo bat gehitzen zaio Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauaren 6. artikuluko 4. apartatuari. Apartatua honela geratzen da idatzita:

«4. Egintza edo kontratuek baldintzaren bat ezarrita dutenean, Kode Zibilean jasotakoaren arabera kalifikatuko dira. Baldintza etengarria bada, zerga ez da likidatuko hura bete arte. Baldintza suntsiarazlea bada, beti exijituko da zerga, nahiz eta horrek ez duen eragotziko, baldintza betetzen denean, bidezko itzulketa egitea aurreko apartatuko erregelaren arabera.

Testamentu-ahalordearen bidez gauzatzen diren herentzietan, zerga sortuko da ahalordea modu ezeztazenez erabiltzen denean edo hura azkentzeko arrazoietakoa bat gertatzen denean».

**Bi.** 5. apartatua gehitzen zaio Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauaren 6. artikuluari. Testuak honela dio:

«5. Testamentu-ahalordean, ahalordea erabiltzen ez den bitartean pertsona jakin bati ematen bazaio zerga honi lotutako ondasunak gozatzeko eskubidea, gozamen horren bi autolikidazio egingo dira:

Behin-behineko autolikidazio bat, sortzapena oinordetza hastean izango duena eta biziarteko gozamenaren arauen arabera egin behar dena, eta behin betiko autolikidazio bat, testamentu-ahalordea erabiltzen denean egin behar dena, aldi baterako gozamenaren arauen arabera, kausatzailearen heriotzatik igarotako denboragatik. Behin-behineko autolikidazioagatik ordaindutakoa kontura egindako sarreratzat hartuko da, eta diferentzia gozamendunari itzuliko zaio, haren aldekoa gertatzen bada. Aldi baterako gozamenaren behin betiko likidazioa egin behar da testamentu-ahalordea erabiltzeagatik edo hura azkentzeko beste arrazoiengatik oinordeko gertatzen direnen likidazioa egitearekin batera».

## **7. artikulua. Ondasun higiezinaren gaineko zerga aldatzea.**

Aldaketak sartzen dira Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 5. artikuluko 1. apartatuan, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3. apartatuan aipatzen dituen entitateak, eta testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziak, betiere zerga honen zerga-egitatea eratzten duten eskubideen titular badira.

Higiezin baten gainean emakidadun bat baino gehiago dagoenean, zergadunaren ordezkokoak ordaindu beharko du kanon handiena.»

## **8. artikulua. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga aldatzea.**

6. artikulua aldatzen da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateginean, apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartuan, eta honela geratzen da idatzita:

«6. artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3. apartatuan aipatzen dituen entitateak, eta testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziak, betiere zerga honen zerga-egitatea eratzten duten eskubideen titular badira».

## **9. artikulua. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga aldatzea.**

3. artikulua aldatzen da Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauan, eta honela geratzen da idatzita:

«3. artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3. apartatuan aipatzen dituen entitateak, ibilgailua haien izenean ageri denean zirkulazio baimenean, eta, orobat, testamentu-ahalordea erabili gabe duten



herentziak, betiere foru arau honetako 1. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenean».

#### **10. artikulua. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga aldatzea.**

2. artikulua 1. apartatua aldatzen da Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauan, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrek 35. artikulua 3. apartatua aipatzen dituen entitateak, eta testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziak, betiere eraikuntza, instalazio edo obraren jabe badira, haiek egiten diren ondasun higiezinaren jabeak izan edo ez.

Aurreko paragrafoan ezarritako ondorioetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren gastu edo kostuak zeinek jasaten dituen, hura hartuko da haien jabetzat».

## **II. TITULUA**

### **TESTAMENTU-AHALORDEA ERABILI GABE DUTEN HERENTZIEN ZERGA ARAUBIDEA**

#### **I. KAPITULUA. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga<sup>1</sup>**

##### **11. artikulua. Arau orokorrak.<sup>2</sup>**

<sup>3</sup>1. Kapitulu honetan arautzen da zer tributazio araubide berezi aplikatzen den pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta ondarearen gaineko zergan, testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentzien kasuan.

2. Herentziaren kausatzaileak, heriotzaren unean, Gipuzkoan baldin bazuen ohiko bizilekua, Gipuzkoako Foru Aldundiari egokituko zaio aipatutako bi zergak ordainaraztea kapitulu honetan jasotako xedapenak aplikatuta.

---

<sup>1</sup> Kapitulu hau hau ekainaren 11ko 2/2018 FORU ARAUAren azken xedapenetako seigarreneko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Ondarearen gaineko Zerga onartu du. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarri da indarrean (2018/06/19ko GAO).

<sup>2</sup> Artikulu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 7. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO), eta xedapen honek 2018-01-01etik aurrerako ondorioak ditu.

<sup>3</sup> Apartatu hau ekainaren 11ko 2/2018 FORU ARAUAren azken xedapenetako seigarreneko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Ondarearen gaineko Zerga onartu du. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarri da indarrean (2018/06/19ko GAO).

## 12. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.<sup>4</sup>

1. Testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentzietatik datozen errentetan aplikatuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan ezarritako xedapenak eta hura erregelamenduz garatzen duten gainerakoak, artikuluko honetako hurrengo apartatueta jasotzen diren berezitasunekin.

2. Ezkontide alarguna edo izatezko bikote-laguna kausatzailearekin batera bizi izan bada ohiko etxebizitzan kausatzailea hil aurreko bi urteetan, eta etxebizitza hori testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentzia baten parte bada, etxebizitza horren eskualdaketa lortutako ondare irabaziak salbuetsita egongo dira, baldin eta eskualdaketa horrek oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren sortzapena ez badakar, eta eskualdaketa lortutako zenbatekoa ezkontide alargunaren edo izatezko bikote-lagunaren ohiko etxebizitza berria eskuratzeko berrinbertitzen bada, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian ezarritakoari jarraituz. Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada eskualdaketa jasotako zenbateko osoa baino, lortutako ondare irabazian berrinbertitutako zenbatekoari dagokion zati proportzionala baino ez da utziko zergapetu gabe.

Era berean, salbuetsita egongo dira ohiko etxebizitza kostu bidez eskualdatzeagatik edo hura zorren ordainez emateagatik lortzen diren ondare irabaziak –Pertsona Fisikoen Errentaren Zergari buruzko urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 42. artikuluko b), c) eta e) letretan aipatzen diren eragiketa horiek–, baldin eta, etxebizitza hori testamentu-ahalorde bat erabili gabe duen herentzia baten parte izanik, eskualdaketa horrek oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren sortzapena ez badakar, eta, betiere, baldin eta ezkontide alarguna edo izatezko bikote-laguna kausatzailearekin batera bizi izan bada ohiko etxebizitzan kausatzailea hil aurreko bi urteetan, eta hura aplikatzeko letretan ezarritako betekizunak betetzen baditu.

Apartatu honen ondorioetarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko da urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 87.8 artikuluan ezartzen dituen baldintzak betetzen dituen.

3. Zerga oinarria kalkulatzeko, erregela hauek aplikatuko dira:

a) Testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziako ondasun eta eskubideak eskualdatzearen ondorioz lortzen diren ondare irabazi eta galerak, eskualdaketa horrek oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren sortzapena ez dakarrenean, herentziak lortutakotzat joko dira beti, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak kostu bidezko eskualdaketetarako ezartzen dituen arauekin bat zehaztuko dira. Eskualdatzen diren ondasun eta eskubideen eskurapen

---

<sup>4</sup> Artikulu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 7. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO), eta xedapen honek 2018-01-01etik aurrerako ondorioak ditu.

data eta balio gisa kausatzaileak edo herentziak berak horiek eskuratutako uneari dagozkionak hartuko dira.

b) Urtarrilaren 17ko Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 35. artikuluan aipatutako kapital higigarriaren etekinak, besteren kapitalak hartu eta erabiltzea adierazten duten aktiboak eskualdatzeagatik lortutakoak, testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziaren parte badira, eta eskualdaketa horrek oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren sortzapena ez badakar, herentziak lortutakotzat joko dira beti, eta foru arau horretan ezarritako arauak jarraituz kalkulatu dira. Eskualdatzen diren aktiboen eskurapen data eta balio gisa kausatzaileak edo herentziak berak horiek eskuratutako uneari dagozkionak hartuko dira.

c) Jarduera ekonomikoen etekinak testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziak lortutakotzat joko dira beti, kontuan hartu gabe Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 24. artikuluko 1. apartatuan ezarritako beharkizuna betetzen duen edo ez.

4. Oinarri likidagarria kalkulatzeko, testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziaren kargura epailearen erabakiz ordaindutako urteko mantenuaren murriztapena bakarrik aplikatu da, hala dagokionean, zerga oinarri orokorrean eta aurrezpenaren zerga oinarrian, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauko 67. eta 69. artikuluetan eta Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko Legean xedatutakoari jarraituz.

5.<sup>5</sup> Zergaren kuota likidua kalkulatzeko, kuotan aplikatu diren kenkari bakarrik Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak 51. artikuluen 8. apartatuan eta 85., 88. eta 91. artikuluetan ezarritakoak izango dira.

6. Testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziei dagozkien oinarri likidagarri orokor negatiboak, aurrezpenaren zerga oinarriko etekinen saldo negatiboak, jarduera ekonomikoetatik datozen etekinen saldo negatiboak, ondare galerak, eta kuota nahikoa ez izateagatik aplikatu ez diren kuotako kenkariak bakar-bakarrik konpentsatu daitezke, zerga araudiak baimentzen duenean, herentzia horiei dagozkien oinarri likidagarri orokor positiboekin, aurrezpenaren zerga oinarriko etekinen saldo negatiboekin, jarduera ekonomikoen etekinetatik datozen saldo positiboekin, ondare irabaziekin eta positiboak diren kuota osoekin.

7. Testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziak zerga ordaintzeko obligazioa du, eta haren betebeharra da, baita ere, foru arau honetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko

---

<sup>5</sup> Apartatu hau 2023ko urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 13. artikulua aldatu du. Aipatutako foru arauak 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2023/01/23ko GAO).



3/2014 Foru Arauan, eta hura garatzen duten erregelamenduzko xedapenetan ezartzen diren gainerako obligazioak betetzea.

8. Zergaldia urtebete naturala baino laburragoa izango da, testamentu-ahalordea osorik eta modu ezeztazinean erabiltzen denean abenduaren 31 ez den beste egun batean, edo hura azkentzeko beste edozein arrazoietakoa bat gertatzen denean. Horrelakoetan, zergaldia egun horretan amaituko da, eta zerga une horretan sortuko da.

### **13. artikulua. Ondarearen gaineko zerga.<sup>6</sup>**

1. Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak 9.3 artikuluan aipatzen dituen herentzietatik –testamentu-ahalordea erabili gabe dutenetatik– datorren ondare garbiari foru arau horretan jasotako xedapenak aplikatuko zaizkio.
2. Testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziak zerga ordaintzeko obligazioa du, eta haren betebeharra da, baita ere, foru arau honetan eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauan ezartzen diren obligazioak betetzea.

## **II. KAPITULUA. Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga.<sup>7</sup>**

### **13 bis artikulua. Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga.<sup>8</sup>**

1. Lurren eskualdaketak testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziei dagozkienean, eta xedapen egintzen ondorioz gertatzen direnean Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 43. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eskualdaketa horiek oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren sortzapena ez badakarte, Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauan ezarritako xedapenak aplikatuko zaizkie, artikulua honetako hurrengo apartatueta biltzen diren berezitasunekin.
2. Aurreko apartatuan aipatzen diren eskualdaketetan, testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentzia izango da zergaren subjektu pasiboa, eta zergaren sortzapena eskualdaketaren unean gertatuko da.

---

<sup>6</sup> Artikulu honen izenburua otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAREN 14. artikulua aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO).

<sup>7</sup> Kapitulu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 7. artikuluko lau apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO), eta xedapen honek 2018-01-01etik aurrerako ondorioak ditu.

<sup>8</sup> Artikulu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 7. artikuluko lau apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO), eta xedapen honek 2018-01-01etik aurrerako ondorioak ditu.

3. Zerga kuota zehazteko, likidazio bat egingo da kausatzaileak terrenoa eskuratu zuenetik igarotako denboragatik, eta hortik deskontatu beharko da Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauaren 6. artikuluko 5. apartatuan xedatutakoaren arabera egindako autolikidazioan gozamenak ordaindutakoa.

Testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziak eskuratutako lurren eskualdaketak egiten direnean Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 43. artikuluko xedapen egintzen ondorioz, likidazio bat egingo da herentziak lurra eskuratu zuenetik igarotako denboragatik.

4. Biziarteko gozamen kasuetan edo gozamen horren erreserba kasuetan, testamentu-ahalordea modu ezeztazinean erabiltzen bada edo heriotzaz besteko arrazoren bat gertatzen bada hura azkentzeko, eta testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziak eskuratutako lurra eskualdatzen badira Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 43. artikuluko xedapen egintzen ondorioz, gozamenari likidazio bakarra egingo zaio biziarteko gozamenaren arauen arabera, testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziak lurra eskuratu zuenetik igarotako denboragatik.

Gozamena testamentu-ahalordearen erabilerarekin azkentzen den kasuetan, gozamenari likidazio bat egingo zaio aldi baterako gozamenaren arauen arabera, testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziak lurra eskuratu zuenetik igarotako denboragatik.

Aurreko bi paragrafoetan aipatzen diren likidazioak eta testamentu-ahalordea erabiltzeagatik edo hura azkentzeko gainerako arrazoiengatik oinordeko gertatzen direnenak aldi berean egin beharko dira.

### **III. KAPITULUA. Alderdi komunak eta beste batzuk<sup>9</sup>**

#### **14. artikulua. Xedapen komunak.<sup>10</sup>**

1. Testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziari buruz aurreko bi artikuluetan ezarritako obligazio formal eta materialak betetzea herentziaren administratzaileari dagokio.

<sup>11</sup>2. Orobat, testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziaren administratzaileak erantzukizun subsidiarioa izango du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan,

---

<sup>9</sup> Kapitulu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 7. artikuluko bost apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO), eta xedapen honek 2018-01-01etik aurrerako ondorioak ditu.

<sup>10</sup> Artikulu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 7. artikuluko sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO), eta xedapen honek 2018-01-01etik aurrerako ondorioak ditu.

ondarearen gaineko zergan, eta hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergan sortzen diren zorrak ordaintzeari dagokionez..

3. Testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziako ondasun eta eskubideak aurreko apartatuan aipatutako zergen pean geratuko dira, pertsona edo entitate edukitzea zeinahi dela ere, salbu eta edukitzea hori erregistroko fede publikoak babestutako hirugarren bat denean, edo, inskribatu ezin diren ondasun higigarrien kasuan, onustez eta titulu zuzenarekin justifikatzen denean ondasunok merkataritza edo industria establezimendu batean eskuratu direla.

Horretarako, aurreko paragrafoan aipatutako ondasun eta eskubideen eskualdaketan, ondasun eta eskubide horiek testamentu-ahalordea osorik edo partez eta modu ezeztazinean erabiltzeagatik edo ahalorde hori azkentzeagatik eskualdatzen badira, esku hartzen duten notarioek, beraiek eskuetsitako agirietan, ohartarazi behar dute ezen ondasun horiek titulu honetan aipatzen diren eta eskualdaketa baino lehen sortutako zergen kuotak ordaintzeari lotuta geratzen direla, obligazio hori preskribatzen ez den artean. Era berean, jabetzako edo merkataritzako erregistratzaileek orri-bazterreko ohar baten bidez adierazi behar dute ondasun eta eskubideak eskualdaketa baino lehen zerga horiengatik sortutako kuotak ordaintzeari lotuta geratzen direla, obligazioa preskribatzen ez den artean.

#### **15. artikulua. Atxikitzeko betebeharra.**

1. Testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziak behartuta daude atxikipenak, konturako sarrerak eta ordainketa zatikatuak egitera, eta dagokien zenbatekoa Gipuzkoako Foru Aldundiari ordaintzera, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauan, sozietateen gaineko zergaren foru arauan, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren foru arauan eta horiek garatzen dituzten erregelamenduzko xedapenetan ezarritako kasu eta moduetan.

2. Nolanahi ere, atxikipenak, konturako sarrerak eta ordainketa zatikatuak behartuta dauden aldetik, testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziek beren gain hartuko dute diru-sarrera foru aldundiari egiteko obligazioa, eta beste obligazio hori ez betetzeak ez ditu salbuetsiko diru-sarrera egiteko betebeharrak honetatik.

#### **16. artikulua. Ondare sozietateen araubidea.<sup>12</sup>**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 14. artikulua 1. apartatuko b) letran aurreikusitako baldintza

---

<sup>11</sup> Artikulu hau ekainaren 11ko 2/2018 FORU ARAUAren azken xedapenetako seigarreneko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Ondarearen gaineko Zerga onartu du. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarri da indarrean (2018/06/19ko GAO)

<sup>12</sup> Artikulu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 7. artikuluko zazpi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO), eta xedapen honek 2018-01-01etik aurrerako ondorioak ditu.

betetzearen ondorioetarako, ondare entitateek ez dute ondare sozietateen izaera galduko testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziek partaidetuta badaude eta herentzia horiei titulu honetan xedatutakoa aplikagarri bazaie.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA**

Foru arau hau indarrean jartzen denean, indargabeturik geratuko dira bertan xedatutakoarekin bat ez datozen edo haren aurka dauden maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

## **AZKEN XEDAPEN BAKARRA. INDARREAN JARTZEA**

Foru arau hau «Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bereziki, II. tituluan jasotzen diren arauak testamentu-ahalordea data horretan erabili gabe duten herentziei aplikatuko zaizkie.



## ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- **1/2018 Foru Araua, maiatzaren 10ekoa, zerga arau batzuetan aldaketak sartzen dituen (2018/05/17ko GAO).**
  - II. Tituluko 7. artikulua ondorengo aldaketak sartzen ditu:
    - Bat apartatuak II. tituluaren barruan I. kapitulu berri bat sartzen du, II. tituluko oraingo 11., 12. eta 13. artikulua biltzen dituen.
    - Bi apartatuak 11. artikulua.
    - Hiru apartatuak 12. artikulua.
    - Lau apartatuak II. tituluari II. kapitulu berri bat gehitzen dio, eta haren barruan 13 bis artikulua sartzen du.
    - Bost apartatuak II. tituluaren barruan III. kapitulu berri bat sartzen du, II. tituluko oraingo 14., 15. eta 16. artikulua biltzen dituen.
    - Sei apartatuak 14. artikulua.
    - Zazpi apartatuak 16. artikulua.
- **2/2018 Foru Araua, ekainaren 11koa, Ondarearen gaineko Zergarena (2018/06/19ko GAO).**
  - Bere azken xedapenetako seigarrenak ondorengo aldaketak egin ditu:
    - Bat apartatuak II. tituluko I. kapituluaren izenburua.
    - Bi apartatuak 11. artikuluko 1. apartatua.
    - Hiru apartatuak 13. artikulua.
    - Lau apartatuak 14. artikuluko 2. apartatua.
- **3/2019 Foru Araua, otsailaren 11koa, 2019. urterako zerga neurriak onartzen dituen (2019/02/20ko GAO).**
  - Bere 14. artikulua 13. artikuluen izenburua aldatu du.
- **1/2023 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen (2023/01/23ko GAO).**



- Bere 13. artikulua 12. artikularen 5. apartatua aldatu du.